

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak salatu du EAJren eta PSEren lege-proposamenak bide arriskutsua irekitzen duela Urdaibairen babesa ahultzeko

Plataformak ohartarazi nahi du, proiektu “estrategikoen” administrazio-izapideak arintzeko argudioaren azpian, proposamenak zuzenean aldatzen du Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatze 5/1989 Legea, eta erabilera nautiko-aisialdiko berriak ahalbidetzen ditu estuarioko eremu sentikorretan.

Busturialdea, 2026ko ekainaren 8a.

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak salatu nahi du **EAJk eta PSEk** aurkeztutako lege-proposamena, zenbait proiektu ekonomikoren administrazio-izapideak sinplifikatu eta arintzeko helburuz aurkeztua, ez dela arau neutroa Urdaibairentzat. Aitzitik, proposamenak berariaz aldatzen du **Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatze 5/1989 Legea**, espazio horren babes juridikoaren oinarritzko araua.

Proposamena jendaurrean burokrrazia kentzeko, epeak laburtzeko eta interes ekonomikokotzat jotzen diren proiektuak errazteko tresna gisa aurkezten da. Hala ere, Urdaibairen kasuan, edukia administrazio-sinplifikazio hutsetik askoz harago doa: **Erreserbaren barruan baimendutako erabileren araubidea aldatzen du.**

Zehazki, proposamenak **P1.2** izeneko eremu-kategoria berri bat sortzen du, mareaz gaindiko, marearteko edo marea azpiko eremuetan erabilera nautiko-aisialdikoak ahalbidetzeko. Eremu horietan aisialdiko ontziak amarratzeko, fondeatzeko eta atrakatzeko itsas instalazioak baimenduko lirateke, baita bidaiariak ontziratzeko eta lehorreratzeko jarduerak ere. Halaber, zenbait eremutan motordun nabigazioa, bainu-eremuak egokitzea eta **dragatze kontrolatua** aurreikusten dira.

Guggenheim Urdaibai Stop plataformaren ustez, aldaketa horiek bereziki larriak dira Erreserbaren bihotz ekologikoari eragiten diotelako: estuarioari, padurei eta lurra eta ura elkartzen diren trantsizio-eremuei. Ez gara edozein lurralderi buruz ari; nazioartean bere ingurumen-, paisaia- eta kultura-balioengatik aitortutako espazio bati buruz ari gara.

Plataformak onartezintzat jotzen du halako garrantzia duen aldaketa bat jarduera ekonomikoa arintzera bideratutako “premiazko neurrien” lege baten barruan sartzea. **Urdaibai ezin da administrazio-oztopo gisa tratatu. Urdaibai espazio babestua da. Eta haren babesa ezin da atzeko atetik malgutu.**

Proposamenak ez du formalki Urdaibairen babesa ezabatzen, baina bai haren norabidea partzialki aldatzen duela, 5/1989 Legearen barruan bertan erabilera rekreatibo berriak, itsas instalazioak eta mugaketa kartografiko berriak sartuz. Horixe da benetako arriskua: gaur erabileren antolaketa gisa aurkezten dena bihar estuarioan proiektu eta azpiegitura berriak egiteko babes juridiko bihurtzea.

Plataformak gogorarazi nahi du Urdaibaiko Biosfera Erreserbak dagoeneko presio urbanistiko, turistiko, industrial eta aisialdiko handia jasaten duela. Testuinguru horretan, edozein lege-erreformak babesa indartu, degradatutako ekosistemak leheneratu eta inpaktuak murriztu beharko lituzke; ez, ordea, eremu sentikorretan erabilera berriak areagotzeko bideak ireki.

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak eskatzen du 5/1989 Legeari eragiten dion edozein aldaketa gardentasun osoz, benetako parte-hartze sozialarekin, txosten tekniko eta ingurumen-txosten zorrotzekin eta prebentzio-printzipioa erabat errespetatuz izapidetzea. Biosfera Erreserba bat ezin da administrazioaren azkartasunaren logikaren edo unean uneko interes ekonomikoen menpe jarri.

Plataformak, gainera, ohartarazi nahi du ekimen hau dinamika kezkagarri baten barruan kokatzen dela: “jasangarri” gisa aurkeztea, praktikan, ingurumen-bermeak ahuldu eta Urdaibain esku-hartze berriak erraztu ditzaketen proiektu edo erreformak.

Izapideak arintzeak ezin du babesa ahultzea esan nahi. Sinplifikatzea ezin da desbabestearen sinonimo bihurtu. Eta Urdaibai ezin da orain arte, hain zuzen ere, bere hauskortasun ekologikoagatik mugatuta zeuden erabilerak sartzeko laborategi legegile bihurtu.

Horregatik guztiagatik, Guggenheim Urdaibai Stop plataformak 5/1989 Legeari eragiten dioten atal guztiak kentzea edo sakon aldatzea eskatzen du, eta Urdaibairen etorkizuna babesaren, leheneratze ekologikoaren eta herritarren parte-hartzearen ikuspegitik erabaki dadila aldarrikatzen du; ez premiazko legegintzatik, ezta urteak daramatzatenek Erreserbaren mugak ahultzen saiatzen dituzten interesetatik ere.

Urdaibaik ez du babes gutxiago behar. Babes gehiago, leheneratze gehiago eta demokrazia gehiago behar ditu.